LEMOIZKO UDALA

UDAL-TABERNA ESLEITZEKO ETA, ONDOREN, USTIATZEKO ERA ARAUTU BEHAR DUTEN BERARIAZKO BALDINTZA TEKNIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIAK. TABERNAREN KOKAPENA: URIZAR AUZOA 42

LEHENENGO HITZARKINA.- KONTRATUAREN XEDEA, IZAERA, KALIFIKAZIOA ETA KODIFIKAZIOA:

1.1.- Kontratu honen xedea da Urizar auzoa 42an dagoen taberna-jatetxea ustiatzea, plegu honetan ezartzen diren baldintzetan.

1.2.- Kontratu hau administrazio-kontratu berezia da, hala ezartzen baita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 25.1.b) artikuluan; horren bidez, Espainiako ordenamendu juridikoan sartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak (aurrerantzean, SPKL).

1.3.- Ustiatu beharreko udal-ondasunaren xedea da taberna-jatetxea izatea, eta xede/ erabilera hori ezin da aldatu.
1.4.- Hona hemen kontratu honen kodifikazioa [CPV kodea, Batzordearen 213/2008 (EB) Erregelamenduak, 2007ko azaroaren 28koak, onartua; erregelamendu horrek aldatu egiten du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 (EB) Erregelamendua, kontratu publikoen hiztegi komuna (CPV) onesten duena]:

- 55100000-1 (ostalaritza-zerbitzuak).
- 55330000-2 (kafetegi-zerbitzuak).
- 55410000-7 (tabernak kudeatzeko zerbitzuak).

BIGARREN HITZARKINA.- LIZITAZIO-MOTA, ESLEIPEN-PREZIOA, BALIO ZENBATETSIA, KONTRATUA ORDAINTZEKO MODUA ETA BEHIN BETIKO BERMEA:

2.1.- Kontratuaren iraupena zortzi (8) urtekoa da + 2 luzapen-urte, eta, hortaz, lizitazioaren zenbatekoa 19.800,00 €koa da [220na €ko 90 hileko (96-6)], gorantz hobetu daitekeena; gehi 5.280,00€, luzapenik bada).

Kontratu honen gehieneko prezioa esleipenean ateratzen dena izango da. Kontratuaren prezioan sartuta egongo dira aplikatzekoak diren tributu, tasa eta kanonak, bai eta plegu hauetan jasotako beharkizunak betetzearen ondorioz

esleipendunari sortzen zaizkion gastu guztiak ere.

2.2.- Kontratu honen balio zenbatetsia 25.080,00€koa da (BEZ kanpo), horren barruan dela kontratuaren gehieneko iraupen osoa, hirugarren hitzarkinean aurreikusten diren luzapenak barne

2.3.- Prezioa izateak berarekin dakar Udalak hori bera kobratzea, eta esleipendunak ordaindu behar izatea.

2.4.- Esleitutako prezioa honela ordainduko da:

Hilean behin: 220 €; zerbitzua ematen den hilaren hasierako bost egunen barruan ordaindu beharko da.

Esleipendunak 8 urteak amaitu baino lehenago bere kabuz suntsiarazten badu kontratua, hileko kuoten %100eko hobaria aplikatuko da hasierako 6 hileetan.

Kontratuaren esleipendunak, kontratuaren beharkizunak beteko direla bermatzeko, mila eta bostehun (1.500,00) euroko behin betiko bermea eratu beharko du.

Bermeak eratzeko epea hamabost egun naturalekoa izango da, kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatuta. Bermea udal-bulegora eraman beharko da, eta eskudirutan nahiz KLTBn ezarritako edozein bitarteko erabiliz eratu ahal izango da.

Aurrekoa gorabehera, kontratuaren epeko azken hileko prezioa ordaindu baino lehenago, esleipendunak justifikatu beharko du osorik eta egoera onean dagoela hasieran entregatu zitzaion material guztia. Eta ezer apurtu bada edo erabiltezin badago, horren ordezkoa jarri beharko da.

HIRUGARREN HITZARKINA.- KONTRATUAREN IRAUPENA, ETA MERKATARITZA-JARDUERA USTIATZEN HASTEA:

3.1.- Kontratu honen ustiapen-aldia zortzi (8) urtekoa da, kontratua formalizatzen denetik.

3.2.- Aurretik finkatutako epea urteka luzatu ahal izango da, eta, gehienez ere, bi luzapen egin ahal izango dira, betiere esleipendunak kontratua amaitu baino bi (2) hilabete lehenago hala eskatzen badu. Eskatutako luzapena onartzeko, Udalak, berariaz, akordioa hartu beharko du.

Kontratu honen ustiapen-aldi osoa, urtebeteko luzapen biak (2) barne direla, gehienez ere hamar (10) urtekoa izan ahal izango da.

3.3.- Kontratua izenpetu/ formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatuta, esleipendunak gehienez ere 20 egun natural izango du jarduera hasteko.

3.4.- Bi (2) urteko proba-aldia izango da; epe horretan, Udalak bere kabuz suntsiarazi ahal izango du kontratua, eta esleipendunak ez du inolako eskubiderik izango kalte-ordaina jasotzeko.

LAUGARREN HITZARKINA.- ZERBITZUAREN TARIFAK ETA LOKALERA SARTZEA

4.1.- Tabernan egiten diren kontsumizioei aplikatu beharreko tarifak jendaurrean jarri beharko dira, eta lokalera sartzen diren guztiek erraz ikusteko moduan egon beharko dute.

4.2.- Tabernara sartzea, oro har, librea eta doakoa izango da erabiltzaile guztientzat. Salbuespenez, ekitaldi edo ospakizunen bat bada, sarrera ordaintzea eskatu ahal izango da, betiere, aurretiaz, Udalari baimena eskatuta.

BOSGARREN HITZARKINA.- ZERBITZUA EMATEKO LOKALA ETA MATERIALA:

5.1.- Udaletxe zaharrean (Urizar 42) kokatutako tabernaren ezaugarri teknikoak, itxitura barne, baldintza-orri hauen I. eranskinean ezarrita daude.

5.2.- Lemoizko Udalak esleipendunaren eskura jarriko ditu baldintza-orri hauen II. eranskinean jasotako elementu material guztiak. Gainerako altzariak, ekipamendu elektronikoa, makineria, tresneria orokorra, sukaldeko tresneria eta behar diren beste elementu guztiak esleipendunak berak ekarriko ditu.

Alkatetzak eta esleipendunak, ados daudela adierazteko, II. eranskinean jasotako inbentarioa sinatuko dute. Eta esleipendunak konpromisoa hartuko du kontratu hau amaitzen den unean Lemoizko Udalari itzuliko diola inbentario horretan jasota dagoena, betiere kontserbazio-egoera ezin hobean.

5.3.- Baldin eta esleipendunak zerbitzua emateko beharrezkoa den beste edozein material erosten badu, horren berri eman beharko dio Udalari, erosi aurretik; erosketa esleipendunaren kontura joango da beti.

SEIGARREN HITZARKINA.- HAUTATZEKO PROZEDURA ETA ESLEITZEKO ERA:

6.1.- Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta kontratazio-organoak behar bezala justifikatuta aukeratutako hautagaiari esleituko zaio, eskaintza onena hautatzeko ezarritako esleipen-irizpideak aplikatuz.

6.2.- Proposamenak baloratzeko eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza zehazteko, kontuan hartuko dira kontratu honen xedeari zuzenean lotutako hainbat esleipen-irizpide, SPKLren 145. artikuluaren arabera.

ZAZPIGARREN HITZARKINA.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK:

Proposamenak baloratzeko eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza zehazteko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1.- Honako hauek dira **eskaintza baloratzeko automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak (C GUTUN-AZALA)**:

1.1.- Prezioa/ kanona: Gorantz hobe daiteke: Gehienez ere 10 puntu.
Gutxieneko kanona **220€/hilekoa** izango da.

Ezarritako gutxieneko kanonaren pareko eskaintzek 0 puntu jasoko dute. Kanona gehien hobetzen duen eskaintzari **10 puntu** emango zaio. Gainerako eskaintzei, hirukotearen alderantzizko erregelaren bidez emango zaie puntuazioa.

1.2.- Gehienez ere **49 puntu**.

Inprimaki bati erantzun beharko zaio, non BAI eta EZ laukitxoak azalduko baitira. BAI laukitxoa markatuz gero, zerbitzua eskaintzari esleitutako puntuazio osoa lortuko da. EZ laukitxoa markatuz gero, 0 puntu emango zaio zerbitzu hori dela-eta.

Hona hemen eskaini beharreko zerbitzuak:

-Eguneko menua **(10 puntu)**

-Asteburuko menua **(10 puntu)**

-Plater konbinatuak/ pizzak/ hanburgesak/ otartekoak **(10 puntu)**

-Askotariko pintxoak (gutxienez, 3 ezberdin) **(10 puntu)**

-Prentsa (egunero, gutxienez, 2 argitalpen ezberdin) **(5 puntu)**

-Bezeroentzako wifia **(3 puntu)**

-Ingurumeneko klausula: Hurbileko produktuak erabiltzea, 0 kilometroa (**puntu bat**)

Honako hauek dira **eskaintza baloratzeko automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak (B GUTUN-AZALA)**:

2.- Hobekuntzak ordutegian.
2.1.- Asteko ordutegia luzatzea (atal honetan, gehienez ere, **10 puntu**).

Jai-egunean, jai-bezperetan, ostiraletan eta larunbatetan irekitzen den ordu gehigarri bakoitzeko, 2 puntu emango da.

Gainerako egunetan irekitzen den ordu gehigarri bakoitzeko, 0,5 puntu.
Horri dagokionez, lizitatzaileek euren eskaintzan zehaztu beharko dute litekeena dela ordutegia luzatzea, halakorik egin nahi badute; eta zehaztu beharko dute, halaber, astean zenbat ordu luzatu nahi duten, bai eta ordu-luzapena zein egunetan egingo den ere.

3.- Euskara

Eskatzailea pertsona fisikoa bada, eta B2, C1 edo C2 maila egiaztatzen badu, **20 puntu**.

Aurretik deskribatutako titulu bat ere ez denean, hautagaiak euskararen jakintza-maila erakutsi ahal izango du. Horretarako, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara teknikari batek ebaluazioa egingo dio, eta 0-20 bitarteko puntuazioa emango dio hautagaiari.

4.- Klausula soziala

Eskatzailea pertsona fisikoa bada, eta egiaztatzen badu familia ugariko kidea dela, **puntu bat**.

5.- Esperientzia

Hostalaritzan esperientzia. Puntu bat urteko **5 puntu**rarte. Hori egiaztatzeko, lan-bizitzaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

6.- Ikasketak

Hostalaritza arloko ikasketak. Tituluaren edota Ziurtagiri bitartez hezkuntza zentro ofizialetan lortutako tituluak **5 puntu**rarte.

ZORTZIGARREN HITZARKINA.- LIZITATZAILEEK KONTRATATZEKO DUTEN GAITASUNA EGIAZTATZEA

Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte pertsona natural edo juridikoek, Espainiakoek edo atzerrikoek, jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekuetan murgilduta ez badaude eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badituzte.

Enpresak pertsona fisikoak edo juridikoak izan ahalko dira, baina haien helburuak edo jarduerak zerikusi zuzena izan beharko du kontratuaren xedearekin, dagozkien estatutuen edo fundazio arauen arabera, eta elementu pertsonal eta materialez osaturiko antolamendu bat izan beharko dute kontratua behar bezala betetzeko.

1. Enpresaburuek jarduteko gaitasuna hurrengo modu honetan egiaztatuko dute:

a) Enpresaburuak pertsona juridikoak badira, jarduteko gaitasuna eratze-eskritura edo -agiriarekin, estatutuekin edo fundazio-egintzarekin egiaztatuko da. Horietan jarduera arautzeko arauak ageriko dira eta behar bezala inskribatuak egongo dira, kasuak kasu, pertsona juridiko motaren arabera, dagokion erregistro publikoan.

b) Enpresaburuak Espainiakoak ez badira, baina Europar Batasuneko Estatu kide bateko nazionalak izanez gero, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko bere Estatuko legediarekin bat dagokion erregistroan inskribapena aurkeztuko da. Bestela, zinpeko adierazpena egin edo ziurtagiria erantsiko da, araubidez xedatutako baldintzetan, erkidegoko xedapen aplikagarriekin bat.

c) Atzerriko gainerako enpresaburuek beste dokumentu hau aurkeztu beharko dute, hau da, Espainiak daukan ordezkaritza diplomatiko iraunkorrak edo bulego kontsularrak emandako txostena. Horren bidez, enpresak egiaztatu ondoren, ziurtatuko dute tokiko lanbide, merkataritza edo antzeko arloko erregistroan inskribatuta daudela, edo halakorik ezean, kontratuaren xedeko jardueren eremuko tokiko trafikoan jardun ohi dutela.

2. Enpresaburuen aldi baterako elkarteak direnean, horietako bakoitzak gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, hala ezartzen baita SPKLren 65, 69, 75 eta bat egiten dute artikuluetan. Aldi baterako elkartearen kaudimena zehazteko, batu egingo dira elkartekide guztiek egiaztatzen dituzten ezaugarriak.

3. Kontratu honen zehaztapen teknikoak prestatzen parte hartu duten enpresek ezin izango dute lizitazio honetan parte hartu, baldin eta parte-hartze horrek murriztu egiten badu lehia irekia edo pribilegiozko tratua badakarte gainerako enpresa lizitatzaileen aldean.

4. Kaudimen teknikoa aurrerago aipatuko diren bitartekoen bidez egiaztatzeaz gain, lizitatzaileek beren gain hartu beharko dute kontratu hau behar bezala betetzeko eskaini dituzten bitarteko pertsonal nahiz materialak zerbitzu horri atxikitzeko konpromisoa.

5. Lizitatzaileek aseguru-polizaren kopia aurkeztu beharko dute, bai eta asegurua kontratatzeko saria ordaindu izanaren frogagiria ere, edo, bestela, aseguru hori kontratatzeko konpromisoa, bertan adieraziz lizitazio honetan esleipendun ateratzekotan kontratatu egingo dutela eta eutsi egingo diotela prestazio-aldi osoan eta berme-epean (ondoz ondoko aseguru-sariak ordaindu izana ere egiaztatu beharko dute). Esleipendunak, litezkeen kalteei aurre egiteko, erantzukizun zibileko asegurua izango du, 125.000,00 eurotik gorako zenbatekoa duena.

Ustiapena amaitutakoan, hartze-aktari batuta, egiaztatu beharko da poliza indarrean dagoela ezarritako berme-epean, eta aseguru-saria oso-osorik ordaindu dela.

Poliza horretan berariaz aseguratu modura azalduko dira esleipendunari eta kontratuan esku hartzen duten langileei egotz dakizkien zerbitzuak egikaritzean hirugarrenei sortutako kalte-galerak.

6.- Enpresaburuek egiaztatu beharko dute ez daudela sartuta SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratazio-debeku batean ere, eta, horretarako, erantzukizunpeko adierazpena egin ahal izango dute.

7.- Kaudimen teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa badela egiaztatzeko agiriak (SPKLTBren 62. artikulua):

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: Erantzukizun zibilagatiko kalte-ordainen asegurua (125.000,00 euro) badela frogatzen duen agiria, edo

lizitatzaileak, esleipendun ateratzekotan, asegurua kontratatzeko konpromisoaren agiria.

- Enpresaburuen kaudimen tekniko edo profesionala honako bitarteko bat edo batzuk erabilita egiaztatuko da:

azken bost urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, eta horrekin batera, bakoitzaren zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoak edo pribatuak diren. Zerbitzuak edo lanak ziurtatzeko organo eskudunak ziurtagiriak egin edo ontzat emango ditu, hartzailea sektore publikoko erakundea denean; hartzailea subjektu pribatua denean, berriz, horrek egingo du ziurtagiria, edo ziurtagiria izan ezean, enpresaburuaren adierazpena aurkeztuko da; bidezkoa bada, ziurtagiriak agintaritza eskudunak zuzenean kontratazio-organoari jakinaraziko dizkio.

8. Lemoizko Udalarekin, Ogasunarekin edo Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin zorrak dituzten lizitatzaileek ezin izango dute lizitazio honetan parte hartu.

BEDERATZIGARREN HITZARKINA.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA, TOKIA ETA MODUA.

9.1.- Lizitazio publiko honetan parte hartzeko, interesdunek hiru gutun-azal itxi aurkeztu beharko dute (A, B eta C gutun-azalak), eta, horietan, aurrerago zehaztuko den dokumentazioa sartu beharko da. Gutun-azal bakoitzean, lizitatzailearen izen-abizenekin batera, honako testu hau ere agertu beharko da: "*Urizar 42ko taberna ustiatzeko lizitazioan parte hartzeko proposamena*".

A gutun-azala: "<u>Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena</u>":

Lizitatzailearen datuak/ Datos de la persona licitadora

Izen-abizenak Nombre y apellidos			
NAN DNI		Jakinarazpenetarako herria Población para notificaciones	
Jakinarazpenetarako helbidea Domicilio a efectos de notificación			

Lizitatzailea ordezkaria bada/ En caso de representación

Ordezkatzen duen entitatea Entidad que representa	
IFK CIF	

Parte hartu nahi duen lizitazioa/ Licitación en la que desea participar

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

LEHENENGOA.- Parte hartu nahi du honako zerbitzu honen kontratazioan: _____

BIGARRENA.-

_____

deritzon zerbitzu-kontratuaren esleipenduna izateko, bete egiten ditu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140. Artikuluko lehenengo idatz-zatian eskatzen diren aurretiazko baldintza guztiak. Zehazki, honako hau adierazten du:

- Badu nortasun juridikoa (jarduteko gaitasuna), eta, hala badagokio, ordezkaritza

- Enpresak dagokion sailkapena du edo, hala badagokio, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren baldintzak betetzen ditu.

- Ez dago sartuta SPKLren 71. artikuluan jasotako inolako kontratazio-debekutan; eta egunean ditu indarrean dauden xedapenen araberako

DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:

PRIMERO.- Que se dispone a participar en la contratación para la prestación del servicio de: _____.

SEGUNDO.- Que cumple con todos los requisitos previos exigidos por el apartado primero del artículo 140 de la Ley 9/2017, 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público para ser adjudicatario del contrato de servicios consistente en: _____.
En concreto, declara:

- Que posee personalidad jurídica (capacidad de obrar) y, en su caso, representación.

- Que está debidamente clasificada la empresa o, en su caso, que cuenta con los requisitos de solvencia económica, financiera y técnica o profesional.

- Que no está incurso en alguna prohibición para contratar de las recogidas en el artículo 71 LCSP y se halla al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes. Del mismo modo el adjudicatario deberá estar al

zerga-beharkizunak, Gizarte Segurantzarekikoak. Era berean, esleipendunak ordainketak egunean izan beharko ditu Lemoizko Udalarekin.

- Atzerriko enpresek aitorpen batean adierazi beharko dute onartzen dutela Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioa kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta uko egiten diotela, hala denean, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari.

- Hona hemen jakinarazpenetarako helbide elektronikoa: _____

HIRUGARRENA.- Konpromisoa hartzen du bere gain adierazpen honen bigarren atalean aipatutako dokumentuak badituela eta baliozkoak direla egiaztatzeko, baldin eta kontratuaren esleipendun ateratzen bada edo noiznahi hala eskatzen bazaio.

Eta idatziz jasota gera dadin, sinatzen du adierazpen hau.

corriente de pagos con el Ayuntamiento de Lemoiz.

-

- Que se somete a la Jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitador (En el caso de empresas extranjeras)

- Que la dirección de correo electrónico en que efectuar notificaciones es: _____

TERCERO.- Que se compromete a acreditar la posesión y validez de los documentos a que se hace referencia en el apartado segundo de esta declaración, en caso de que sea propuesto como adjudicatario del contrato o en cualquier momento en que sea requerido para ello.

Y para que conste, firmo la presente declaración.

En _____, a ___de _____de 20__.

_____n, 20__(e)ko _____aren _____(e)an

Izpta./ Fdo.: _____"

B gutun-azalak (2. fasea), irizpide subjektiboei buruzkoak, honako dokumentu hauek edukiko ditu:

Esleipenerako oinarri izango diren eta plegu honen zazpigarren klausulan aipatzen diren irizpide subjektiboak baloratzeko beharrezkoak diren alderdiak egiaztatzen dituzten agiri guztiak.

C gutun-azalak (3. fasea), **irizpide objektibo**ei buruzkoak, honako dokumentu hauek edukiko ditu:

Proposamen ekonomikoa, behar bezala beteta, eta III. eranskineko eredu normalizatuaren arabera.

9.2.- Proposamenak eta dokumentazio osagarria bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, Lemoizko Udalaren kontratatzailearen profilaren bidez, edo Euskadiko kontratazio-plataformaren bidez. Aurkezteko epea **2022ko uztailaren 27ra artekoa da, 13:00 arte**.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean, beste batzuekin aldi baterako elkartean ezingo du proposamenik izenpetu, banan-banan egin badu edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertzen bada. Arau horiek hautsiz gero, ez dira onartuko lizitatzaile hark izenpetutako proposamen guztiak.

Proposamen bat aurkezteak berarekin dakar enpresaburuak baldintzarik gabe onartzea baldintza-orri hauetan eta erantsitako dokumentuetan ezarritako klausula guztiak, inolako salbuespenik gabe.

HAMARGARREN HITZARKINA.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA.

10.1.- Gardentasuna eta kontratu jarduerari buruzko informazioa jendeak eskura duela ziurtatzeko, bestelako iragarpen bitartekoak erabiltzea baztertu gabe,

Lemoizko Udalak kontratatzailearen profila du eta web orrian arautzen diren zehaztapenei jarraiki iritsi ahal izango da.

10.2.- Administrazio-espedientea ikusgai egongo da Lemoizko Udaleko bulegoetan, aztertu nahi duenaren eskura, proposamenak aurkezteko epea amaitu aurreko egunera arte, jendearentzako bulego-orduetan (09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera).

10.3.- Kontratazio Mahaiaren egintzen emaitza, eskaintzak onartu edo baztertzea kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, eta profil hori iragarki-oholtzat joko da.. Kanpoan geratuko da indarrean dagoen legeriaren arabera argitaratu behar ez den informazioa. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo eragindako lizitatzaileei nahitaez bidali beharreko komunikazioa edo jakinarazpena igortzeari.

HAMAIKAGARREN HITZARKINA.- ENTITATE ESLEITZAILEA, KONTRATAZIO-MAHAIA, KONTRATAZIO-ORGANOA, KONTRATUAREN ARDURADUNA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEKO PROZEDURA.

11.1.- Kontratu honen entitate esleitzailea Lemoizko Udala da.

11.2.- Kontratu honen xedea kontratatzeko organo eskuduna Lemoizko Udalbatza da, hala ondorioztatzen baita SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarritik.

Aipatu organoak kontratua adjudikatzeko gaitasuna du eta, ondorioz, interpretatu, betetzean sortutako zalantzak argitu, interes publikoa dela eta aldatu, suntsiaraztea erabaki eta ondoreak zehazteko eskumenak ditu. Hori guztia araudi aplikagarria kontuan hartuta egin beharko du. Ematen dituen erabakiak betearazleak izango dira, kontratistak bidezko jurisdikzioaren aurrean horiei aurka egiteko duen eskubideari kalterik egin gabe.

11.3.- Kontratazio Mahaia eskaintzak balioztatzeko organo eskuduna da, eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko Legearen 326. artikuluan xedatutakoari jarraiki jardungo du. Gainera, bertan zehazten diren funtzioak garatuko ditu.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak bigarren xedapen gehigarriko 7. puntuan aurrez ikusitakoaren arabera, kontratazio-mahaiaren buru Udalbatzako kide edo funtzionario bat izango da eta mahaikide gisa egongo dira idazkaria edo, hala badagokio, aholkularitza juridikoaren zeregina esleitua duen organoko titularra eta kontu-hartzailea ala, bidezkoa bada, ekonomia- eta aurrekontu-kontrolaren zeregina esleitua duen organoko titularra, Udalbatzaren zerbitzura diharduten karrerako funtzionario, lan-kontratuko langile edo hautatutako kideen artean kontratazio-organoak izendatzen dituen beste batzuekin batera,

baina guztira ez dira hirutik behera izango. Hautatuko kideek kontratazio-mahaia osatuz gero, kide guztien herena ez dute gainditukо. Idazkari-lanetan udal-funtzionario bat arituko da.

Hauxe da lizitazio honetarako eratutako Kontratazio Mahaiaren osaera:

Mahaiburua: Iñaki Alonso Martín
Idazkaria: Jon Ibarra Lira
Mahaikidea: Miren Josebe Elorduy Ardanaz
Ordezkoa: Lander Alberdi López.

11.4.- Kontratazio-espediente honetan sortzen diren zalantzak argitzeko, jo hona: Gai juridiko eta teknikoetarako: Idazkaritza: Jon Ibarra Lira

11.5.- Lizitazio honetarako eratutako Kontratazio Mahaiak aurretik aztertuko du A gutun-azalaren edukia (administrazio-dokumentazioa), eta behar den kalifikazioa emango die lizitatzaileek epean eta behar bezala aurkeztutako dokumentuei.

Eskatutako dokumenturen bat ez aurkezteak edo eskatutako era ez den beste moduren batean aurkezteak berarekin ekarriko du Kontratazio Mahaiak behin betiko ez onartzea. Aurkeztutako dokumentazioan ikusi diren huts materialak edo egitezkoak zuzentzeko, hiru eguneko epea emango zaie lizitatzaileei.

Kontratazio Mahaiak, zehazten duen leku, egun eta orduan, lizitatzaileei jakinaraziko die, jendaurrean, zein proposamen onartu diren, eta, ondoren, "B" gutun-azalean (irizpide subjektiboak) dauden proposamenak irekiko dira, bai eta irakurri ere.

"B" gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioan hutsik edo ez-egiterik aurkituz gero, Kontratazio Mahaiak zazpi egunetik beherako epea emango die interesdunei zuzentzeko, hala ezartzen baita maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan.

Proposamenak irakurri ostean, mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen adina txosten tekniko eska ditzake, txostenok pleguan ezarritako irizpide eta haztapenen arabera balioztatzeko.

Kontratazio Mahaia berriro batzartu ondoren, ezagutzera emango da zein puntuazio eman zaien balio-iritzipeko irizpideei. Jarraian, C gutun-azalak irekiko dira.

Halatan, balio-iritzipeko haztapena duten irizpideak (B gutun-azala) eta haztapen automatikoko nahiz matematikoko irizpideak (C gutun-azala) baloratuta, Kontratazio Mahaiak Kontratazio Organoari proposatuko dio zein den kontratuaren

esleipenduna.

Esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde Lemoizko Udalaren aurrean. Hala ere, kontratazio-organoak ez badu kontratua esleitzen egindako proposamenarekin bat, arrazoitu egin beharko du erabakia.

HAMABIGARREN HITZARKINA.- ERREKERIMENDUA, ESLEIPENA ETA KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA:

12.1.- Kontratazio-organoak proposamen onuragarrienari esleitu ahal izango dio kontratua, baldintza-orri hauetan ezarritako irizpideak haztatuz, eta ez dio zertan nahitaez proposamen horren balio ekonomikoari jaramonik egin. Beste aukera bat da lehiaketa eman gabe uztea, eta, horrelakoetan, esleipen-irizpide horien inguruko arrazoiak eman beharko ditu ebazpena ematean.

12.2.- Kontratazio-organoak eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua egingo dio, eta horren bidez adieraziko dio hamar egun baliodun dituela, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako agiri hauek aurkez ditzan:

- Zerga-betebeharrak egunean daudela frogatzen duen dokumentazioa (egiaztagiri positiboa).
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren mende dauden jarduerak direnean, esleipendunak martxan dagoen ekitaldiari dagokion alta-agiria, edo azken ordainagiria, aurkeztu beharko du, eta, horrekin batera, aipatutako zergaren matrikulan baja egin ez duela ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpena eta, hala badagokio, salbuetsita dagoela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena ere bai.
- Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duten dokumentazioa (egiaztagiri positiboa); edo, bestela, kontratazio-organoari horren guztiaren egiaztagiria zuzen-zuzenean lortzeko baimena ematen dion agiria (APKLAOren 13. artikulua eta hurrengoak).
- Kontratua betetzeko jarriko dituen baliabideak benetan badituela frogatzeko dokumentazioa.
- Aseguruaren kontratua, baldin eta dagokion epean konpromiso-agiria baino aurkeztu ez badu (polizaren kopia eta ordainagiria).
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda dagoela frogatzen duen agiria, betiere dagokion epigrafean zehaztuta eta aribideko ekitaldiari dagokiona.
- Gainerako dokumentazioa, baldin eta berariazko administrazio-baldintzen orriek, kontratu honen esleipenduna izateko, hala eskatzen badute.

Eskatutako agiriak adierazitako epe horretan aurkezten ez badira, lizitatzaileak eskaintza kendu duela joko da. Hori gertatzen bada, puntuazioaren arabera antolatutako eskaintzen zerrenda hartu eta haren ondoko lizitatzaileari eskatuko zaio lehen aipatutako agiri horiek aurkez ditzala.

Oharra.- Bermea honako modu honetako batean eratu ahal izango da:

a) Dirutan edo zor publikoko baloreetan, legea garatzeko arauetan xedatutako baldintzetan. Jasotako balioen eskudirua eta ondasun ibilgetuaren ziurtagiriak Gordailuen Kutxa Orokorrean edo horren sukurtsaletan gordeko dira, Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzatan, edo eragina izan beharreko tokiko erakunde kontratatzaile edo autonomia-erkidegoen ordezko kutxa edo establezimendu publikoetan, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen garapen-arauek jasotako moduan eta baldintzetan.

b) Espainian jarduteko baimena izanez gero, banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kredituaren finantza-establezimendu eta elkar bermatzeko sozietateek lege honen garapen-arauek xedatutako moduan eta baldintzetan emandako abalaren bitartez. Hori aurreko a) letran aipatu diren establezimenduetan gordailatu beharko da.

c) Kauzio-aseguruko kontratuaren bitartez, arloan jarduteko aseguru-etxe baimenduarekin lege honen garapen-arauek xedatutako moduan eta baldintzetan gauzatu ostean. Aseguruaren ziurtagiria aurkeztu beharko da aurreko letran jasotako establezimenduetan.

Bermea ez da itzuli edo kitatuko berme-epea amaitu eta kontratua behar bezala bete arte.

Bermeak SPKLk 110. artikuluan aurrez ikusten dituen kontzeptuei erantzungo die.

12.3.- Eskatutako dokumentazioa epe barruan eta behar den eran jasotzen denean, kontratazio-organoak dokumentazioa hartzen duenetik, kontratua bost egun baliodunen epean esleitu beharko du.

Esleipena arrazoituko da, eta hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie. Gainera, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Jakinarazpenean, betiere, informazio nahikoa jarri beharko da, baztertutako lizitatzaileak edo hautagaiak esleipen-erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsoa jarri ahal dezan. Bereziki, honako alderdi hauek azalduko dira:

1.- Baztertutako hautagaiei dagokienez, hautagaia ezesteko arrazoien azalpen laburra.

2.- Esleipen-prozeduratik baztertutako lizitatzaileei dagokienez, modu berean

laburtuta, adieraziko dira eskaintza ez onesteko arrazoiak.

3.- Nolanahi ere, esleipendunaren izena; onetsiak izanez gero, gainerako lizitatzaileek aurkeztutakoen aldean eskaintza hori aukeratzeko esleipendunaren proposamenaren ezaugarri eta abantaila erabakigarriak.

4.- Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean formalizatzeko epea azalduko da.

12.4.- Kontratua administrazio-agiri baten bidez formalizatuko da, adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo hamabost egun baliodunetan. Agiri hori, nahikoa izango da edozein erregistro publikora sartzeko.

Kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, haren kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Esleipenduna aldi baterako enpresa-elkartea bada, epe beraren barruan eta kontratua sinatu aurretik, eraketaren eskritura publikoa aurkeztu beharko du.

Kontratua formalizatzen duen agiria, nolanahi ere, administrazio-izaerakoa izango da, eta hori bera nahikoa izango da edozein erregistro publikotara iristeko.

Hala ere, kontratua eskritura publikoan formaliza daiteke, kontratistak eskatzen duenean eta bere kargura izango dira egilestearen gastuak.

Esleipendunari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik ezin bada kontratua adierazitako epean formalizatu, Udalak ezeztatzea erabaki ahalko du. Horretarako, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen arautegi orokorreko 109. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio. Hori horrela, sortutako kalte-ordainak ordainduko ditu.

HAMAHIRUGARREN HITZARKINA.- ZERGAK ETA GASTUAK:

Esleipendunaren kontura joango dira kontratu honi dagozkion zerga, tasa eta gastu guztiak.

HAMALAUGARREN HITZARKINA. INGURUMENEKO HITZARKINAK.
Ingurumen-irizpideari dagokionez, ingurumen-arloko prestakuntza emango zaie langileei, eta lan-jarraibideak prestatuko zaizkie hondakinak kudeatu eta kontsumoak murrizteko, eta kontuan hartuko dira energia eta ura aurrezteko planak.
Esleipendunak bere gain hartzen du "zaramarik ez" filosofia, eta, horretarako, behar diren ekimenak bideratuko ditu: behar-beharrezkoa den lehengaia baino ez da

erabiliko; lehengaia, ahal denean, berriro erabiliko da; eta gainerakoa birziklatuko da.
Esleipendunak zerbitzua emateko erabili edo erositako materialak edo produktuak, bai eta zerbitzuan erabilitako metodoak eta prozedurak ere, errespetuzkoak izango dira ingurumenarekin eta osasun publikoarekin.

HAMABOSGARREN HITZARKINA.- ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK:

15.1 Eskubideak:

- Esleipendunak eskubidea izango du taberna-jatetxea ustiatzeko. Zuzen-zuzenean ustiatu beharko du esleipenaren xede den taberna, eta, beraz, ezin izango du beste pertsona bati subrogatu, ezta instalazioak —osorik zein zati bat— errentan jarri, azpierrentatu edo utzi —zuzenean zein zeharka— ere. Salbuespena izan liteke Udalak askatasunez hori egitea erabakitzen badu, eta, horretarako, baimena eman beharko du hirugarren bati subrogatzeko, eta azken horrek bere gain hartuko lituzke ustiapenetik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak.
-

15.2.- Betebeharrak:

- Esleipenduna esleitutakoaren arduraduna izango da, onerako zein txarrerako, eta zerbitzua eman beharko du baldintza-orri hauetan edo ondoren Lemoizko Udalak agindutakoaren arabera.
- Esleipenduna izango da egindako zerbitzuen kalitatearen arduraduna, baita kontratua betetzean izandako ez-egiteen, akatsen, metodo desegokien edo ondorio okerren eraginez Administrazioarentzat edo hirugarrenentzat izan ditzakeen ondorioen erantzulea ere. Arreta berezia eman beharko dio abenduaren 26ko 28/2005 Legea betetzeari; lege horren bidez arautzen dira, batetik, tabakismoari aurre egiteko osasun-neurriak, eta, bestetik, taberna, jatetxe eta aisialdi-lokaletan tabako-produktuak saldu, hornitu, kontsumitu eta publizitatzeko era.
- Esleipendunak ondo erabili, zaindu eta, hala badagokio, berriro jarri beharko ditu Udalari inoizko batean kontratazio honen harira itzuli beharko dizkion materialak eta ondasunak.
- Esleipendunaren kontura joango dira kontratua betetzearen ondorioz hirugarrenei eragiten dizkien kalteen ordainak, bai eta betebeharrak ez betetzearen ondorioz sortzen diren kalteenak ere. Horretarako, kontratatuko duen aseguru-poliza eta dagokion ordainagiria aurkeztu beharko ditu; eta poliza horrek estali beharko du, batetik, lokalaren, instalazioen eta zerbitzuen

baldintza objektiboen ondorioz parte-hartzaileei eragiten dizkien kalteen erantzukizun zibila, eta, bestetik, zerbitzuan jarduten duten langileen jarduerak eragindako kalteena (aseguratu beharreko gutxieneko zenbatekoa, 125.000,00 euro).

- Zerbitzualdia, gutxienez, 8 ordukoa izango da eguneko.
- Egutegiari dagokionez, ondoren zehazten den ordutegiaren arabera emango da zerbitzua:

-Astean behin, atseden-eguna, baina ezin izango da izan jai-eguna edo jai-bezpera.
-Oporrak: gehienez ere, hilabete urte bakoitzeko, bi hamabostalditan zatituta. Hamabostaldi horiek ezin izango dira hartu ekainetik irailera bitartean, ezta Lemoizko jaiak, Aste Santua, pazko-astea edo gabonak direnean ere. Esleipendunak, nolanahi ere, nahitaez jakinarazi beharko dio Udalari oporrak noiz hartuko dituen.

-Aipatutako gutxieneko ordutegiak eta egutegia nahitaez bete beharko izango dira, salbu eta Lemoizko Udalak, salbuespenez, bestela erabakitzen badu.

-Andra Mariko elizan hiletarik bada, tabernak irekita egon beharko du hileta baino ordubete lehenagotik hileta egin eta hurrengo bi orduetan.

-Meza den igandeetan, ofizioa egin baino ordubete lehenagotik ofizioa amaitu osteko ordubetera.

- Esleipendunak, aurretiaz udalaren baimenik ez badu, ezin izango du lokalean inolako obrarik egin, ezta musika-aparaturik edo instalaziorik egin ere.
- Esleipendunak egoera onean eduki beharko ditu utzi zaizkion lokala, instalazioak eta makineria, eta, kontratuaren amaieran, ez da inola ere onartuko hitzartutako ondasunak ondo erabiltzetik datorren narriadura normala ez denik, eta, izatekotan, bere kontura egin beharko ditu egin beharreko konponketak. Ondasunak, nolanahi ere, hitzartutako xedeetarako baino ez dira erabiliko.
- Esleipendunak zorrotz bete beharko ditu lan eta osasun-arloko legeriaren arau aplikagarriak, eta lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloetan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu; Udala salbuetsita geldituko da, betetzen ez badira, eta, beraz, ez luke erantzukizunik izango.
- Esleipendunaren kontura joango dira jarduera egitetik eratorritako kontribuzio, zerga edo tasa guztiak.

- Esleipendunaren kontura joango dira edariak eta, oro har, elikagai guztiak erostea, eta, beraz, Udalak ez du inolako erantzukizunik izango esleipendunaren eta hornitzaileen arteko merkataritza-harremanetan.

- Instalazioetan edozein anormaltasun agertzen bada, edo instalazioen erabilera zuzena oztopatzen duten bestelako zailtasunak agertzen badira, esleipendunak horien berri eman beharko dio Udalari, konpondu edo alda ditzan.
  - Esleipendunak egokitzat jotzen duen enpresa hornitzailea aukeratuko du, eta bere gain geratuko dira ur eta elektrizitate-kontsumoetako gastu guztiak. Era berean, fakturazio-aldi bakoitzeko, Udalari aurkeztu beharko dio faktura ordaindu izanaren frogagiria, ordaintzen duenetik 15 eguneko epearen barruan.
- Esleipendunak behar bezain garbi edukiko du lokala.
- Esleipendunak irekita eduki beharko ditu komunak, erabiltzeko (sarbideak oztoporik gabe egon beharko du, hau da, ezin aulkirik, mahairik eta horrelakorik bertan jarri).
- Debekatuta dago makina txanponjaleak edo apustu-makinak jartzea lokalean. Jolas-makinak ipini nahi izatekotan, aurretiaz Udalaren baimena lortu behar da. Debekatuta dago zorizko makinak jartzea.

- Hondakinen kudeaketa: Esleipendunak bere gain hartzen du hondakinak birziklatu eta sailkatzeko konpromisoa (organikoa, papera, beira, ontziak, olioa…)
- Kartelak jartzea: Eraikinaren fatxadan jarritako kartela ez den beste edozein iragarpen-kartela ipintzeko, aurretiaz Udalaren baimena lortu behar da.
- Jendeak ikusteko moduko lekuan ipini behar dira prezioen zerrenda eta jarduera egiteko baimen-agiria; eta eskuragarri izan behar ditu erreklamazio-orriak.
- Udalak esleipena egiaztatzeko emandako agiria tabernan eduki beharko du, jendeak ikusteko moduko leku batean.
- Behar bezalako baldintza higieniko-sanitarioetan eman beharko da zerbitzua, eta, horregatik, tabernan lan egiten duten guztiek elikagaiak manipulatzeko prestakuntza-ziurtagiria eduki beharko dute.
- Esleipendunak kontratua betetzen jardungo duten langileen lan-dokumentazioa aurkeztu beharko du.
- Esleipendunak, inolako kostu gehigarririk gabe, Udalari emango dizkio kontratua zuzen garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu profesional guztiak.
- Udalak bertan behera utz dezake esleipena epemuga bukatu baino lehen, baldin eta interes publikoari eragiten dion egoeraren bat gertatuko balitz.
- EAEko hizkuntza ofizial biak erabiliko dituzte sustapen-elementuetan eta karteletan, eta jendaurrean jartzen diren testu edo dokumentu guztietan, betiere Udalaren hizkuntza-irizpideak betez.

- Lokalaren eraikinean inoiz obrarik edo konponketarik egin behar bada, esleipendunak baimena eman beharko du lokalera sartzeko, beharrezkoa bada.
- Esleipendunak Administrazioaren esku utzi behar ditu erabilitako ondasunak, libre eta hutsik, epearen barruan, eta Administrazioari aitortu beharko dio lokala berreskuratzeko ahalmena.
- Administrazioak emandako erabakiak, aginduak eta errekerimenduak errespetatu eta bete beharko ditu.
- Esleipendunak egunero eman beharko ditu janariak.

HAMASEIGARREN HITZARKINA.- UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK:

16.1.- Eskubideak:

- Kontratazio-organoak pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu ahal izango du —erakunde kontratatzailearekin lotuta edo harekin zerikusirik ez duena— lanaren arduraduna izan dadin, eta horrek gainbegiratuko du nola gauzatzen ari den lana, eta egiaztatuko du ea hura kontratuan ezarritakoarekin bat datorren. Era berean, kontratazio-organoaren aginduak eta jarraibideak emango dizkio esleipendunari.
- Kontratazio-organoak nahierara agindu ahal izango ditu —zerbitzua zuzenean kudeatuko balu bezala— interes publikoak ustiapenean gomendatzen dituen aldaketak, eta, besteak beste, honako hauek:
  - Esleipendunak kudeaketa fiskalizatu ahal izango du, eta, horretarako, zerbitzua, obrak eta lokalak nahiz ustiapenaren xedearekin zerikusia duen dokumentazioa ikuskatu ahal izango ditu, bai eta prestazioari eutsi edo berrezartzeko aginduak eman ere.
  - Esleipendunak —berari lotutako arrazoiak direla-eta, edo beste arrazoi batzuengatik— zerbitzua emango ez balu edo ezingo balu eman, Udalak ahalmena izango du taberna aldi batean zuzenean kudeatzeko.
  - Egindako arau-hausteak direla-eta, Udalak zuzenketak ezarri ahal izango dizkio esleipendunari.

- Lokala, instalazio eta altzari guztiak Lemoizko Udalari itzuliko zaizkio, kontserbazio eta funtzionamendu-egoera onean.
- Udalak, bi (2) urteko proba-aldiaren barruan, bere kabuz suntsiarazi ahal izango du kontratua, eta esleipendunak ez du inolako eskubiderik izango kalte-ordaina jasotzeko.

16.2.- Betebeharrak:

- Udalak esleipendunari emango dio haren eskubideak baliatzeko babes egokia.

- Esleipendunari kalte-ordaina emango dio zerbitzuaren kudeaketa zuzenean bere gain hartzeak eragiten dizkion kalte-galerengatik, baldin eta kudeaketa hori interes publikoko arrazoiengatik gertatzen bada, esleipendunaren errurik gabe, eta probaldia amaitu ondoren.

HAMAZAZPIGARREN HITZARKINA.- ARAU-HAUSTEEN ARAUBIDEA ETA ZIGOR-ARAUBIDEA

17.1.- Zigor-araubidearen ondorioetarako, honako hauek **arau-hauste**tzat joko dira:

1.- Arau-hauste arinak:

a) Esleipendunak erabiltzaileari arreta eta begirunerik ez ematea.
b) Udal-ikuskatzailetzaren aginduak berandu betetzea.
c) Udal-ikuskatzailetzak hala eskatzen duenean, datuak ez ematea edo berandu ematea.
d) Ustiapenaren xede diren instalazioak garbi ez egotea.
e) Partikularrek edo Udal Ikuskatzailetzak salaketa aurkeztu ondoren, Udalaren iritziz halakotzat hartu behar direnak.

2.- Arau-hauste larriak:

a) Udalaren organo eskudunak, ikuskatu ondoren, emandako aginduak ez betetzea.
b) Zuritzen duen arrazoirik gabe jendeari saltzeko zerbitzua etetea, ondoz ondoko hamabost egun baino gehiagotan.
c) Udal-ikuskatzailetzak eskatzen dituen datuak eta txostenak ezkutatu, ez egin, itxuraldatu edo ukatzea.
d) Bi hileko epean, hirutan baino gehiagotan egitea hutsegite arinak.
e) Fakturazio-aldi bateko ur zein argi-fakturak ez ordaintzea.

3.- Arau-hauste oso larriak:

a) Osasun publikorako arriskutsuak izan litezkeen egintzak edo ez-egiteak, bai eta pertsonentzat edo gauzentzat arriskutsuak izan litezkeen akatsak edo egoerak berandu konpontzea edo zabarkeriaz jokatzea ere.
b) Urtebeteko epearen barruan, bi hutsegite larri egitea.
c) Udalaren jarraibideak eta aginduak ez betetzen egiaztatutako setakeria.

d) Salmenta egiteko eran edozein jokabide iruzurgile egitea edo irregulartasun larri erakustea, baldin eta erabiltzaileentzat bereizkeria edo esleipendunarentzat bidegabeko aberastea badakar.

e) Ustiapenaren xede diren instalazioen erruzko edo zabarkeriazko abandonatze edo narriatzea dakarren edozein jokabide.

f) Fakturazio-aldi biko ur zein argi-fakturak ez ordaintzea.

g) Ondoz ondoko bi hiletan, dagokion prezioa/kanona ez ordaintzea.

17.2.- Zigor-araubidearen ondorioetarako, honako hauek dira zehapenak**:**

a) Hutsegite arinak direla-eta, gehienez ere 150 euroko zehapena jarri ahal izango da horietako bakoitzeko.

b) Hutsegite larriak direla-eta, 151-500 euro bitarteko zehapena ezarri ahal izango da horietako bakoitzeko, eta, horrez gain, hilabetez bahituko da ustiapena, aldi horretan zehar jarduera itxita egonez.

c) Hutsegite oso larriak direla-eta, 501-1.500 euroko zehapena jarri ahal izango da horietako bakoitzeko. Era berean, aldez aurretik esleipendunari ohartarazi bazaio, ustiapena suntsiarazi ahal izango da, eta, horrekin batera, ustiapena berriro esleitzeko lizitazio-deialdia egin ahal izango da, Administrazioak egoki irizten badio.

HAMAZORTZIGARREN HITZARKINA.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK:

18.1.- SPKLren 211. artikuluan ezartzen dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

Gainera, kontratu hau suntsiarazteko funtsezko arrazoi edo baldintza izango da ur eta argi-kontsumoen fakturak ez ordaintzea. Beraz, baldintza hori betetzen ez bada, hori bera izango da kontratua suntsiarazteko arrazoi berezia.

Kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, halaber, erabiltzaileenganako jokabide txarra eta tratu iraingarria izatea, bai eta esleipendunak bezeroarekiko arretan dituen jardun okerrak izatea ere.

18.2.- Kontratua suntsiarazteko prozedura SPKLren 212. artikuluan eta HAKLAOren 109. artikuluari eta hurrengoetan zehazten da, eta horri jarraikiz egin beharko da, eta sei hilabete izango dira suntsiarazteko prozedurari ekiten zaionetik. Azkenik, SPKLren 212. eta 109. artikuluetan aipatutako ondorioak izango ditu.

HEMERETZIGARREN HITZARKINA.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA BIDE JURISDIKZIONALA.

19.1.- Kontratu honek administrazio-izaera berezia dauka, eta kontratua prestatu,

esleitu, ondorioak zehaztu eta suntsiarazteko, baldintza-orri hauetan ezarritakoari begiratuko zaio. Baina horietan zehazten ez denerako, beste hauek izango dira aplikagarri: 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena; 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena —horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora—; 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa; 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aurka ez doan guztian, baldin eta 817/2009 ED indarrean sartzen denean indarrean badago; eta 773/2015 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren hainbat manu aldatzen dituena (araudi hori urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Horien ordez, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, etao, horrelakorik ez balego, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

19.2.- Kontratu honetan aldeen artean sortzen diren desadostasunak ebazteko, administrazioarekiko auzi-jurisdikzioa da eskuduna, hala ezartzen baita SPKLren 27.1 artikuluan.

HOGEIGARREN HITZARKINA.- HIZKUNTZA HITZARKINA.

Arreta euskaraz zein gaztelaniaz eman beharko da. Kontratatu beharreko zerbitzua emateak herritarrekin harreman zuzena izatea dakarrenean, enpresa/pertsona esleipendunak zerbitzua eman beharko du, betiere herritarrek euskaraz eta gaztelaniaz arreta jasotzeko duten eskubidea errespetatuz, lehenari lehentasuna emanez bigarrenari erabilera-ordenari, tipografiari eta idatzizko dokumentazioan hizkuntza hautatzeari dagokienez, etab.

Herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzen direla bermatze aldera, kontratu hau gauzatzeko baldintza berezia ematen zaio zerbitzua euskaraz nahiz gaztelaniaz emateko betebeharrari, eta, berariaz, kontratua gauzatzeko funtsezko betebehar berezia esleitzen zaio, artikulu horretan adierazitako ondorioetarako. SPKL, 211.1.f).

Lemoiz, 2022ko ekainaren 27an.

Dokumentu hau Udalbatzak onartu zuen, ekainaren 30ean hartutako akordioaren bidez.

I. ERANSKINA.- TABERNAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Baldintza-orri hauen arabera egiten den kontratuak xedetzat izango du udal-tabernaren lokala —Urizar 42an— erabili eta ustiatzea, erabilera-baldintza ezin hobeetan eta berehala. Ondoren aipatzen dira xehetasunak.

Taberna-jatetxearen barrualdeak honako gune hauek ditu:
- Kafetegia
- Barra
- Jatetxea
- Sukaldea
- Komunak

Lokala errektangeluarra da, eta, bertara sartzeko, fatxada nagusitik egiten da.

Espazio orokorrak 4 zati ditu, ondo bereiztuta, eta horietako bakoitzak erabilera bat du. Ezkerraldean, fatxadan, komunek bereiztutako bi gune daude: kafetegia eta jatetxea. Eta, eskuinaldean, mehelinean, barra dago, eta, ondoan, sukaldea, lokalaren amaieran.

Lokalaren estetikak apala izan nahi du, material naturalekin egina, eta kolore neutroak erabilita.

Hainbat taldek denboran zehar erabiltzea helburu duen lokala denez, kalitatezko eta lerro errazeko proiektu bati ekin nahi zaio, denboraren joanari eta negozioaren ikuspegi desberdinetara egokitu ahal izateko.

II. ERANSKINA.- UDAL-ONDASUNEN INBENTARIOA

Urizar 42ko udal-tabernak, esleipendunik ateratzen bada, honako elementu hauek izango ditu:

1.- Barra osoa.

- **BOTILAK HOZTEKO MAKINA, EB-200 l.**
- **PETO BOTILATEGIA**
- **EDONTZIAK GARBITZEKO MAKINA, AV-2100 B.**
- **KAFE-MAKINA, FUTURMAT RIMINI ELEC. 2G**

2.- Sukaldea

- **HOZTEKO ARMAIRUA, AR400 INOX.**
- **IZOZTEKO ARMAIRUA, ARC400 INOX.**
- **SUTEGIA, SNACK SCG-40E.**
- **BEHEKO MODULUA, SMB-40E**
- **KEA ERAUZTEKO KANPAIA.**
- **LABEA, RX-304.**

III. ERANSKINA.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUEN KONPROMISOA.- EREDUA

Lizitatzailearen datuak/ Datos de la persona licitadora

Izen-abizenak Nombre y apellidos			
NAN DNI		Jakinarazpenetarako herria Población para notificaciones	
Jakinarazpenetarako helbidea Domicilio a efectos de notificación			

Lizitatzailea ordezkaria bada/ En caso de representación

Ordezkatzen duen entitatea Entidad que representa			
IFK CIF		Helbide fiskala Domicilio fiscal	

Izan du administrazio-kontratu berezi hau esleitzeko eskatzen diren baldintzen berri, eta, ondorioz, honako konpromiso hau hartzen du:

Enterado de las condiciones y requisitos que se exigen para la adjudicación del presente contrato administrativo especial, se compromete:

Bere kargupean hartzen du lokala ustiatzea, betiere adierazitako baldintzak zorrotz betez. Eta eskaintzen duen zenbateko osoa hauxe da:

A tomar a su cargo la explotación del mismo, con estricta sujeción a los expresados requisitos y condiciones, por un importe total de:

ZENBATEKO OSOA, BEZ barne (*) IMPORTE TOTAL, IVA incluido (*)	

(*) Zenbateko hori kontratuaren iraupen osoari dagokio, luzapenak kanpo utzita.

(*) Entiéndase por la duración inicial del contrato, prórrogas excluidas

Lizitatzaileak jasota utzi nahi du honela xehatzen dela bere eskaintza:

El licitador hace constar que la oferta presentada se desglosa del modo que sigue:

LEMOIZKO UDALA

ZENBATEKO OSOA (BEZ barne), eta luzapenak barne **IMPORTE TOTAL** (IVA incluido), con prórrogas incluidas	

_____n, 2022ko _____aren _____(e)an
En _____, a _____de _____de 2022.

Eskainiko diren zerbitzuak:
Servicios a ofrecer:

Eguneko menua **(10 puntu)** Menú del día **(10 puntos)**
EZ/NO⬭ BAI/ SI⬭

Asteburuko menua **(10 puntu)** Menú de fin de Semana **(10 puntos)**
EZ/NO⬭ BAI/ SI⬭

Plater konbinatuak/Pizzak/Hanburgesak/Otartekoak **(10 puntu).** Platos combinados/Pizzas/Hamburguesas/Bocadillo **(10 puntos)**
EZ/NO⬭ BAI/ SI⬭

Askotariko pintxoak (gutxienez, 3 ezberdin) **(10 puntu).** Pinchos variados (al menos 3 diferentes) **(10 puntos).**
EZ/NO⬭ BAI/ SI⬭

Askotariko prentsa (egunero, gutxienez, 2 egunkari ezberdin) **(5 puntu).** Prensa variada (al menos 2 publicaciones diferentes diariamente) **(5 puntos).**
EZ/NO⬭ BAI/ SI⬭

Bezeroentzako wifia **(3 puntu)** Wifi para los clientes **(3 puntos).**
EZ/NO⬭ BAI/ SI⬭

Ingurumen-klausula: hurbileko edo 0 kilometroko produktuak erabiltzea **(puntu bat).** Clausula medioambiental: Utilización producto de cercanía-kilómetro 0 **(1 punto).**
EZ/NO⬭ BAI/ SI⬭

IV. ERANSKINA.- BISITA GIDATUA
ANEXO IV.- VISITA GUIADA

Ustiatu beharreko lokala eta instalazioak aztertu eta baloratzeko, lizitatzaileei proposatzen zaie lokala ikusteko bisita gidatua hitzartzea, esleipen-eskaintzak aurkezteko lizitazio-iragarkian ezarritako hamabost egunetako batean.

Harremanetarako: Lemoizko Udala; telefonoa, 946879025; ordutegia, 09:00-13:00

A los efectos de poder analizar y valorar las dependencias y las instalaciones a explotar, se propone para los licitadores interesados en la presente licitación pública concertar visita guiada durante los quince días establecidos en el anuncio de licitación para poder presentar ofertas de adjudicación.

Contacto: Ayuntamiento de Lemoiz, Teléfono nº 946879025, en horario de 9.00 h a 13:00 h.